

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO KUADRILLA

Aiarako Kuadrillaren eskualde intereseko jarduera edo programetarako dirulaguntzen 2023ko oinarri arautzaileak

AURKIBIDEA

1. Xedea.
2. Aurrekontuko zuzkidura.
3. Erakunde onuraduna.
4. Erakunde onuradunen betebeharrak.
5. Eskaerak eta agiriak.
6. Eskaerak aurkezteko epea.
7. Dirulaguntzak emateko prozedura eta balioespen irizpideak.
8. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta dirulaguntzen zenbatekoa eta kalkulua.
9. Azterketa, ebazpena eta erakunde eskumendunak.
10. Jakinarazpena eta ordaintzeko modua.
11. Konturako dirulaguntza ordaintzeko bermea.
12. Dirulaguntzaren muga.
13. Beste laguntza batzuekin bateratzea.
14. Kontrol bermeak.
15. Ebazpena aldatzea.
16. Dirulaguntzaren likidazioa. Betebeharrak.
17. Dirulaguntza galtzea.
18. Dirulaguntzen zati bat itzultzea eta ez-betetzeen mailaketa irizpideak.
19. Zehapenak.
20. Garapena, interpretazioa eta zabalkundea.

I. kapitulua: Xedapen orokorrak

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da norgehiagoka bidez arautzea nola eskuratuko diren Aiarako Kuadrillak emango dituen laguntza ekonomikoak 2023ko ekitaldi honetan. Laguntza horiek eskualde intereseko jarduerak eta programak antolatzen, garatzeko eta egikaritzeko finantzaketara bideratuta egongo dira, zeinak egingo baitituzte Aiarako Kuadrilla osatzen duten bost udaletatik (Laudio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Okondo) bik baino gehiagok edo bi kuadrilla baino gehiago engaiatuko baitituzte, edo lurralde eremu horretatik kanpo gauzatzen badira ere, helburua besteak beste eskualdeko interesa edo kuadrillaren erakundearen interesa sustatzea dutenak izango dira.

Diruz lagunduko diren jarduerak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean egin ahal izango dira.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak dudarik gabe dirulaguntza jasotzen duen jarduerarekin lotura dutenak izango dira, eta oinarri hauek beteko dituzte.

Jarduera edo programa horiek batera finantzatzeko laguntzak dirulaguntza kontzeptuan emango dira, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako bere Garapen Araubidea eta aplikatu beharreko gainerako garapen legeria, legeria osagarria edo subsidiarioa beteko dute.

2. Aurrekontuko zuzkidura

Emandako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa kuadrillaren aurrekontuetan adierazitakoa izango da.

Gastua kuadrillaren 2023ko aurrekontuko 920 481019 aurrekontu partidaren kargura egingo da.

Partida horretako gehieneko kreditua, eta, beraz, dirulaguntza deialdi honetarako gehieneko aurrekontuko zuzkidura 6.000,00 euro da.

3. Erakunde onuraduna

Onuradunak izango dira banakako subjektuak edo kolektiboak, lehentasunez eskualde interesa sustatzen duen jarduera edo programa sustatzen eta antolatzen dutenak.

Onuraduna pertsona juridikoa denean, dirulaguntzaren ematea oinarritzen duten jarduera guztiak edo batzuk egiteko konpromisoa hartzen duten onuradunaren bazkideak, lehenengoaren izenean eta kontura, onuraduntzat joko dira.

Pertsona fisiko edo juridikoen taldeak badira, espresuki jarri beharko da eskaeran kide bakoitzak zer konpromiso hartzen dituen eta bakoitzari laguntzaren zer zenbateko aplikatuko zaion, haiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Kasu horretan, taldearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko dute, eta onuradun bezala taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa eskumen izango ditu. Taldea ezin izango da desegin Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluetan jasotako preskripzio data igaro arte.

Laguntza horiek jarduera edo programa bat sustatzen eta gauzatzen duten banakako subjektuek edo kolektiboek jaso ahal izango dituzte, betiere jarduera horrek kuadrillaren dirulaguntzarik jasotzen ez baldin badu. Helburu horretarako, eskatzaileak (legez eraturako elkarte edo batzordeak) egoitza soziala Aiarako Kuadrillaren barneko udalerriren batean izan beharko du, edo dirulaguntza xede den jarduera edo programa kuadrillaren barneko udalerrietatik bi baino gehiagotan gauzatu beharko du, edo, salbuespen gisa, baldintza horietakoren bat betetzen ez badu, eskualdearen interesa nabarmen sustatu beharko du. Gainera, elkarrekin honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Legez eraturata eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribatuta egotea.
- Irabazteko xederik gabeko elkarrekin eta erakundeak izatea.

- Beren programak eta aurrekontuak botere publikoen kontrolpean jartzea.
- Gobernu organoen osaeran eta funtzionamenduan barne demokraziaren existentzia bermatzea, eta genero berdintasunaren arabera jardutea beren antolamenduan eta jardueren programazioan.
- Kuadrillako erregistroan agiri bidez frogatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Laguntzen onuradunak izan ahal izango dira baita ere kuadrillaren barneko udalerriren baitan erroldatuta dauden pertsona fisikoak. Betekizun hori salbuetsi ahal izateko, proposatutako jarduerak edo programak eskualde interes nabarmena izan behar du.

Laguntza horiek jaso ahal izango dituzten bakarrak kuadrillaren aurrekontuetan izendun dirulaguntzaren bat emateko partidarik jasota ez duten elkarteak izango dira.

Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrrak 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

4. Erakunde onuradunen betebeharrak

Hauek dira pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak:

a) Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzeari edo haren jarrera izatea.

Proposatutako jarduera edo programa guztiek eskualdeari emango diote lehentasuna, eta karteletan, ikusteko moduan, dirulaguntza ematen duen entitatearen logoa jarri beharko dute diruz lagundutako jarduera guztietan, eta euskara eta berdintasun irizpideak jarraitu beharko dituzte, hizkuntza eta irudi inklusiboak erabiliz (salbu eta laguntza ebatzi aurretik egin badira).

b) Aiarako Kuadrillaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.

c) Aiarako Kuadrillaren egiaztapen jardun guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskumendunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeke egiten dituztenak ere, eta jardun horietan eskatzen den informazio guztia ematea.

d) Aiarako Kuadrillari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu izana. Dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide horien berri jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio, eta, nahitaez, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen.

e) Ebazpen proposamena eman aurretik egiaztatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela, baita itzulketa bidezkoak eta gainerako zuzenbide publikoko zorrak ere.

f) Kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, merkataritzako legerian eta kasu bakoitzean ezarritakoaren arabera.

g) Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

h) Dirulaguntzaren xededun programen, jardueren, inbertsioen edo jarduketan finantzazioaren izaera publikoko publizitate egokia ematea, eta beraz, testu hau gehitu beharko da: "Babeslea: Aiarako Kuadrilla" / Patrocina: Cuadrilla de Ayala", kuadrillaren logoarekin edo ezkutuarekin. Hori guztia dirulaguntza jaso duen programaren kartel, argazki edo bestelako komunikazio grafiko guztietan. Publizitate horretako espazioa gutxienez bestelako publizitateetako espazioen berdina izan beharko da (salbuetsiz bestelako dirulaguntzak edo ekarpen ekonomikoak kuadrilla honek emandakoak baino altuagoak direnean). Era berean finantzaketaren izaera publikoaren berri emango da propaganda erabiltzen denean ikus-entzunezko bitartekoekin eta megafonia-rekin. Aurreko guztia, betiere jarduera dirulaguntza eman ondoren egiten bada. Gainera, kartel eta publizitate guztietan kontuan izan beharko da euskararen hizkuntza tratamendua, hizkuntza eta irudi inklusibo eta ez-sexistekin.

i) Jarduera eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia garatzeko lege eskatzen diren izapide guztiak egitea.

j) Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzultzea.

5. Eskaerak eta agiriak

Eskaerak eskabide normalizatuan edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetan gauzatu beharko dira.

Dirulaguntzari buruzko informazio guztia kuadrillaren web orrian egongo da eskuragarri, hemen: www.cuadrilladeayala.eus eta www.aiarakokuadrilla.eus.

Eskaerak Aiarako Kuadrillaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko dira.

Eskaera orriarekin batera (l. eranskina) honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1) Eskaera sinatu duen pertsonaren izena eta abizenak eta NANA, bere izenean jarduten duelako edo elkarre baten ordezkari bezala. Legez elkarrearen lehendakari bezala agertzen den pertsona ez den batek eskaera egiten baldin badu, legezko lehendakariak sinatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinaren bitartez sinatzaileari baimena ematen baitzaio elkarrearen izenean jarduteko.

2) Elkarre eskatzailearen IFZren fotokopia (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia). Elkarreen kasuan, honako hauek ere aurkeztu beharko dira: elkarrearen eratze data, legez erata eta Eusko Jaurlaritzako Elkarreen Erregistroan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

3) Aurreikusitako jardueraren edo programaren memoria-proiektua, honakoak izango dituen:

a) Jarduera horien helburuak eta eskualdean eta eskualdetik kanpo duten garrantzi estrategikoa.

b) Haietako bakoitzerako aurreikusitako lekua, data, ordutegia eta iraupena.

c) Proiektuaren edo jardueraren hedapen maila: jarduera nori zuzenduta dagoen, eta zenbat onuradunek eta parte hartzailek parte hartuko duten; hala badagokio, haren oihartzuna eta hedapena.

d) Diruz lagunduko den jarduera edo programaren deskribapena eta, hala badagokio, jarduera gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak.

e) Diruz lagundutako jardueretan euskarak duen presentzia definitzea, bai eta jardueretako berdintasuna eta inklusioa ere, halakorik balego.

f) Hala badagokio, diruz lagundu daitekeen jardueran beste elkarre batzuek duten parte hartzearen deskribapena.

g) Eskatzaileak egokitzen jotzen duen eta jarduera edo programa hobeto deskribatzen edo osatzen duen beste edozein gairen deskribapena.

h) Dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak bete direla justifikatzeko memoriak. Memoria horietan, sexuaren arabera banakatutako informazioa emango da honako hauei buruz: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, entitatearen titularrak eta langileak, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den entitateko langileak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21 bis artikulua arabera.

4) Dirulaguntza xede den jardueren sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua, beste erakunde edo entitate batzuei eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak xehatuta, dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulua bakarrik dirulaguntza jaso dezaketen gastuen arabera kalkulatzeko; gastu horiek dudarik gabe dirulaguntzaren izaerarekin bat datozenak izango dira.

5) Banku kontuaren zenbakia, IBANarekin, erakunde eskatzailearen izenean, dirulaguntzaren ordainketa izapidetzeko.

6) Elkarteen kasuan: elkarteen eratzte data, legez eraturta eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

7) Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko baldintzak betetzeari buruzkoa (II. eranskina).

8) Erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina):

– Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak ordaintzeari dago-kionez egunean egotea, baita itzulketa bidezko zergekiko eta zuzenbide publikoko gainerako zorrekiko ere.

– Dirulaguntzak itzuli beharrari buruzko eginbeharrak egunean izatea.

– Onuradun izateko debekuren baten barne ez egotea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoak hain zuzen ere.

Kuadrillak, beharrezkotzat jotzen baldin badu, dagozkion ziurtagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.

9) Zinpeko adierazpena, dirulaguntzaren xede diren programa edo jarduerak gauzatzeko beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako laguntzei edo dirulaguntzei buruzkoa, edo, hala badagokio, lortu direnei buruzkoa, bai eta haiek lortzeko edo ezesteko ebazpena jakin bezain laster kuadrilla honi nahitaez jakinarazi beharra ere, dirulaguntza doitzeko, hala badagokio (IV. eranskina).

Bakarrik administrazioan dauden agiriak aurkezteko eskatuko da kuadrillak horiek lortu ezin dituzenean.

Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetzearen, entitate eskatzaileei ohartarazten zaie ezen zerrendan aipatutako dokumentazioaren zati baten gisa aurkeztutako datuak ez direla erabiliko urteroko dirulaguntza emateko prozeduran baizik, zeinaren deialdia oinarri hauek arautzen baitute.

6. Eskaerak aurkezteko epea

Laguntzak jaso ahal izateko eskariak aurkezteko epea izango da oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2023ko irailaren 29ko 23:59 arte.

Deialdiari buruzko informazio guztia eskuragarri egongo da kuadrillaren web orrian: www.cuadrilladeayala.eus eta www.aiarakokuadrilla.eus; halaber, eskabideak Aiarako Kuadrillaren goitza elektronikoen bidez egin beharko dira.

Ezarritako epearen ondoren aurkeztutako dokumentazioan irregulartasunen bat edo hutsuneren bat baldin badago, horiek zuzentzeko hamar egun balioduneko epea egongo da, eskaria jasotzetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan eskaria zuzendu ez bada, artxibatu egingo da eta administrazio balioa galduko du.

7. Dirulaguntzak emateko prozedura eta balioespen irizpideak

Eskaerak norgehiagoka bidez hautatuko dira. Lege honi dagokionez, norgehiagokatzat joko da dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskaerak alderatzen dituen prozedura, zeinaren xedea baita lehentasun bat ezartzea eskaeren artean, oinarri honetan ezarritako balioespen irizpideen arabera, eta irizpide horiek aplikatuz balioespen altuena lortu dutenei esleitzea. Puntuazio bera lortzen dutenek lehentasun hurrenkera izango dute, ezarritako balioespen irizpideetan lortutako puntu kopuruaren arabera. Berdinketak jarraitzen badu, erregistro hurrenkerearen arabera lehentasun hurrenkera izango dute.

Dirulaguntzak esleitzeko orduan honako balioespen irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Proiektuak, programak edo jarduerak eskualdearentzat duen garrantzia estrategikoa eta eskualdean eta eskualdetik eta kuadrillako erakundetik bertatik kanpo izango duen eragina: 32 puntu.

– Diruz lagundutako jardueraren edo programaren inplikazio maila eta hedapena (jarduera edo programaren udalerrri onuradun edo eragin esanguratsua izan duten udalerrri kopurua): 10 puntu.

- 3 udalerritan inplikatzera: 2 puntu.
- 4 udalerritan inplikatzera: 6 puntu.
- 5 udalerrietan inplikatzera: 10 puntu.

– Diruz lagundutako jardueraren edo programaren inplikazio maila eta hedadura, jarduerak edo programak gauzatzearen onuradun izan diren pertsonen kopuruari, eta jarduera, proiektua edo programa eta haren hedapena inplikatzeko dituen elkarte kopuruari begira, eta, eragina badu kuadrillako erakundean bertan, horren zehaztapena: 0 puntutik 9 puntura:

- Eskualdeko elkarte batek parte hartzea: 0 puntu.
- Eskualdeko bi elkartek parte hartzea: 2 puntu.
- Eskualdeko hiru elkartek parte hartzea: 3 puntu.
- Eskualdeko lau elkartek baino gehiagok parte hartzea: 5 puntu.
- Gainera, eskualdetik kanpoko elkarteekin parte hartzen badute: 6 puntu.

• Aurreko puntuazioei beste 3 puntu gehitu ahal izango zaizkie, jardueraren onuradunen zenbatespenaren arabera: 0,5 puntu 1.000 onuraduneko, aipatutako 3 puntuak zenbatu arte.

– Kuadrillak berak, eskualde erakunde gisa, proposatzen den jarduera edo programarekin duen indartze maila: 0-8 puntu:

- Kuadrilla indartu ezean: 0 puntu.
- Maila baxua: 1 eta 2 puntu artean.
- Maila ertaina: 3 eta 5 puntu artean.
- Maila altua: 5 eta 8 puntu artean.

– Entitate eskatzaileak bere jarduera eremuan erakutsi duen jarraitzeko gaitasuna, egonkortasuna eta finkatzea: 5 puntu.

- Elkartearen antzintasuna 5 eta 6 urte bitartekoa bada: 1 puntu.
- Elkartearen antzintasuna 7 eta 8 urte bitartekoa bada: 2 puntu.
- Elkartearen antzintasuna 9 eta 10 urte bitartekoa bada: 3 puntu.
- Elkartearen antzintasuna 11 urte baino gehiago bada: 5 puntu.

2. Hizkuntza normalizazioko irizpideak: 0 eta 7 puntu artean:

- Proiektua erabat euskaraz gauzatzen bada: 7 puntu.
- Proiektua ele bitan gauzatzen bada: 3 puntu.
- Jardueran ez bada euskararik erabiliko: 0 puntu.

4. Berdintasun eta dibertsitate irizpideak: 0 eta 7 puntu artean.

- Proiektuaren helburua berdintasuna eta dibertsitatea sustatzea bada: 7 puntu.
- Proiektuak ez badu kontuan hartzen genero ikuspegia sartzea jardueran: 3 puntu.
- Proiektuak ez badu berdintasuna aipatzen: 0 puntu.

5. Ahalegin finantzarioa: (beste finantzaketa iturri batzuk bilatzea). Eskatzaileak beste finantzabide batzuetara jotzeko zailtasuna izatea; eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak, eskatutako zenbatekoaren aldean; eta baliabide eta finantzabideen bila egiten duen ahalegina: 0 eta 6 puntu artean.

- Finantzaketa osoa administrazio edo erakunde publikoen dirulaguntzetatik badator: 0 puntu.
- Autofinantzaketaren maila ehuneko 1 eta 20 artean bada: 2 puntu.
- Autofinantzaketaren maila ehuneko 20 eta 50 artean bada: 4 puntu.
- Autofinantzaketaren maila ehuneko 50 baino gehiago bada: 6 puntu.

8. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta dirulaguntzen zenbatekoa eta kalkulua

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko da argi eta garbi diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diona, guztiz beharrezkoa dena eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten dena. Janari gastuak, lunch osasungarria eta gainerakoak jarduerarekin lotura estua badute soilik finantzatuko dira, gehienez ere ehun eurora arte (100,00 euro).

Gastu guztiak dagozkien fakturekin justifikatu beharko dira.

Zeharkako zergak berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

2. Dirulaguntzen zenbatekoa.

a) Jarduera bati emandako gehieneko dirulaguntzak ezin izango ditu bere defizita eta eskatutako zenbatekoa gainditu, eta kontuan hartu beharko da dirulaguntzen edo bestelako bitartekoen bidez jasotako finantzaketa guztiak ezin izango duela gainditu aurkeztutako programaren edo jardueraren kostua.

b) Jarduera edo programatzako pertsona fisiko edo juridiko bakarrak kobratu ahal izango duen dirulaguntzaren guztizkoak ezin izango du dirulaguntza horiei esleitutako aurrekontuaren gehieneko ehunekoaren ehuneko 16,66 gainditu, hau da, 1.000,00 euro.

Salbuespenez, eta horretarako nahikoa aurrekontu dagoenean, aurreko paragrafoan ezarritako zenbatekoa gainditu ahal izango da, eta, horretarako, atalaren informazio batzordeak arrazoitutako irizpena eman beharko du.

9. Azterketa, ebazpena eta erakunde eskumendunak

Oinarri hauetan ezarritako helburua eta beharrezko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak banaka aztertuko dira eta Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez onetsiko dira, aurretiaz kasuan kasuko Atalaren Informazio Batzordeak irizpena emango duelarik.

Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasunen bat edo hutsuneren bat baldin badago, horiek zuzentzeko hamar egun balioduneko epea egongo da, eskaria jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Era berean, egokitzen joz gero, hamar egun balioduneko epea ezarriko da prozeduran zehar Aiarako Kuadrillak eskatu ahal izango dituen dokumentazioa eta txostenak aurkezteko. Kasu bietan ere, epe hori igarotakoan dokumentazioa aurkeztu ez baldin bada edo eskaria zuzendu ez baldin bada, artxibatu egingo da eta administrazio balioa galduko du.

Aurrekoa eta deialdi honetako 7. oinarriko irizpideak kontuan hartuz aurkeztutako eskariei buruzko agiria sortuko da, hauek adieraziz:

- Eskaerak onetsiak edo ezetsiak izan diren.
- Dirulaguntza ematea proposatutako eskatzaileen zerrenda.
- Jardueraren edo programaren dirulaguntzaren zenbateko zehatza.
- Ebaluazioaren eta aplikatutako irizpideen gaineko argibideak.

Aurkeztutako eskatzaileen guztizko sortzapena horretarako ezarritako aurrekontu partidan ezarritako zenbatekoa baino handiagoa bada, dirulaguntza emango zaie ondoen balioetsitakoei, deialdi honen 2. oinarrian ezarritako aurrekontua agortu arte.

Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarra izango da dirulaguntza emateko organo eskuduna, atalaren informazio batzordeak aurretiaz irizpena emango duelarik.

10. Jakinarazpena eta ordaintzeko modua

Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko ebazpena onetsi ondoren eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie. Ebazpena arrazoitua izango da eta, betiere, ebazpenaren oinarriak frogatuta geratu behar dira. Dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda agertu behar da eta gainerakoek zergatik ez duten jasoko azalduko da. Erabakia dirulaguntza ematearen aldekoa baldin bada, ebazpenean laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, baldintzak eta dirulaguntza onartzeko eta justifikatzeko epea adieraziko dira; epe hori gehienez ere jarduera bukatzen denetik aurrera hilabetekoa izango da, eta edonola ere ezin izango du abian den urteko abenduaren 31ko epea gainditu.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

– Ehuneko laurogei (ehuneko 80) onuradunak dirulaguntza ematea onartzen duela jakinarazten duen unean.

– Gainerakoa (ehuneko 20), 16. oinarrian aipatutako justifikazioa aurkezten denean.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabete da. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuko da epea.

Dirulaguntza emateari buruzko ebazpenak administrazio bidea bukatuko du.

Gehieneko epea igarotzean ebazpenik jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasunagatik interesatuek eskaria ezetsitzat jo beharko dute.

Oinarri hauetan ezarritako irizpideak aplikatuz, kuadrillak aurkeztutako proiektu guztiei dirulaguntzen zenbateko osoa edo partziala ez emateko eskubidea izango du, edo hala badagokio, deialdia esleitu gabe adierazteko eskubidea.

Honako deialdi honen aurka zein honen ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

11. Konturako dirulaguntza ordaintzeko bermea

Berme eraketaren karga arintze inguruabarrak ezartzen dituen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren araubidea onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 42. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz, ez zaie horrelakorik eskatuko oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunei.

12. Dirulaguntzaren muga

Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak, deialdi honen bitartez, inolaz ere ezin izango du onuradunak gauzatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

Onetsitako dirulaguntza balioespen organoak berriz ere aztertu ahal izango du, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, diruz lagundutako jardueraren edo jardueren gastu eta diru sarreren azkeneko likidazioaren emaitza defizitariora izango da eta horrek ez ditu urratuko zortzigarren oinarrian ezarritako gehieneko ehunekoak.

13. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Laguntza horiek ematea bateragarria izango da beste erakunde edo entitate batzuek emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin, Aiarako Kuadrillak eman ditzakeenak izan ezik, eta hala zehazten bada bere aurrekontuan dirulaguntza izendun gisa.

Beste administrazio edo erakunde batek jarduera bererako beste dirulaguntza bat eman duela jakiten denean, berehala jakinaraziko zaio Aiarako Kuadrillari.

Helburu bererako bestelako finantzaketa baliabideak daudenari edo ez daudenari buruzko zinpeko adierazpenean jaso egin beharko da horren zenbatekoa, eta hala badagokio, ebatzi gabe dauden laguntzen eskarietak. Jasotako dirulaguntza ezberdinen guztizko zenbatekoa jardueran onetsitako aurrekontua baino gehiagokoa baldin bada, kuadrillak emango duen laguntza gehiegizko kopuru horrekin bat eginez murriztuko da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ezingo da inoiz dirulaguntza jaso duen programaren kostua baino handiagoa izan.

14. Kontrol bermeak

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatzeko.

Ikuskatze horretan laguntzeko betebeharra du onuradunak, eskatutako datuak eman beharko ditu eta, hala badagokio, jarduerak egiten diren bulegoetara sarbidea emango du.

15. Ebazpena aldatzea

Dirulaguntza ematen denean, pertsona edo erakunde onuradunak Aiarako Kuadrillari jakinarazi beharko dizkio garapenean, proposatutako jardueretan, aurrekontuan eta abarrean gertatutako aldaketa guztiak, betiere aurkeztutako programa oinarri hartuta. Aldaketa horiek aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak onuradunaren nahiaren aurkakoak izandakoak izango dira, edo dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak, elementuak edo inguruabarrak aldatu direnean gertatutakoak.

Kuadrillako dirulaguntzaren onuradunak beste administrazio edo entitate batzuetatik beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu, berehala jakinarazi beharko da haiek eman direla, eta kopuru osoaren ondorioetarako kontuan hartuko dira, kuadrillak diruz lagundutako jarduera edo programaren kostu osoa ez gaunditzeko, onuradunak, azkenean, beste administrazio edo erakunde batzuek emandako jarduerari uko egitea erabaki edo ez.

Aldaketak jakinarazitakoan, horiek eraginak badituzte emango den dirulaguntzaren zenbatekoan, Tokiko Gobernu Batzarrak hilabeteko epean derrigorrez idatziz jakinarazi beharko dio onuradunari egindako berrikuspenaren emaitza, eta ebazpen berria jasoko dira zenbateko berria eta dirulaguntzaren emakidaren baldintza berriak. Epe hori igarotakoan Aiarako Kuadrillak berrikuspen eskaria erantzuten ez baldin badu, ez onartutzat joko da.

16. Dirulaguntzaren likidazioa Betebeharrak

Justifikazioaren kontu ematea onuradunaren nahitaezko egintza da, eta eredu normalizatuan aurkeztuko da (V. eranskina). Eranskin hori izango da justifikazioaren gutxieneko edukia, eta onuradunak, nahi izanez gero, justifikazio datu osagarriak erantsi ahal izango ditu. Dirulaguntza justifikatzeko, adierazpen egilearen erantzukizunpean, gastuen eta diru sarreraren egiaztagirak sartu behar dira, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko. Horrez gain, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko Aiarako Kuadrillaren dirulaguntzaz gainera norberaren funtsak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk ere erabiltzen badira, justifikazioan kopuru horiek aipatu behar dira: jarduerarako erabili direla frogatu, zenbatekoa nahitaez zehaztu eta nondik lortu diren azaldu beharko da baita ere.

Dirulaguntza justifikatzeko, pertsona edo elkarte onuradunak dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko du, eta ez kuadrillak emandako diru kopurua bakarrik, horrela baitago xedatuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren. Eredu normalizatuaren arabera, dokumentazio honekin aurkeztu behar da:

1. Egindako jardueraren memoria. Hala badagokio, kuadrillaren dirulaguntza jasoko duen zatia zehaztuko da, emandako zerbitzuaren azken onuradun edo erabiltzaileei buruzko informazioa sexuaren arabera banakatuta.

2. Diru sarreraren eta gastuen likidazio xehatua, eta, hala badagokio, kuadrillaren dirulaguntzari dagokion zatia:

– Diru sarrerak: izandako diru sarrera guztien zerrenda xehatua jaso beharko da, eta kuadrillak diruz lagundutako jarduerarako beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuk lortu izana adierazi bada, laguntza edo diru sarrera horiek emateko edo ukatzeko ebazpenaren fotokopia aurkeztu beharko da.

– Gastuak: jardueran izandako gastu guztiak dagozkien fakturekin erlazionatu beharko dira, ordainketa frogagiriekin lotuta. Gastua beste baliabide edo dirulaguntza baten bitartez modu partzalean finantzatu baldin bada; horiek baliozkoak izan beharko dira merkataritza trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna izan beharko dute. Fakturak zenbatuta eta aurkeztutako fakturen zerrendari atxikita aurkeztu beharko dira.

– Fakturak ordaindu izanaren egiaztagiria, dagozkien fakturekin erlazionatuta edo lotuta.

3. Sarrera eta gastuen likidazioan dauden laguntzak jasotako eta beste batzuk bezala eskatutako bakarrak izan direla eta dirulaguntza eskarian jasotakoak ezetsiak izan direla adierazten duen zinpeko adierazpena.

4. Dirulaguntzak zuen helburua bete dela egiaztatzen duen aitordua.

5. Jarduera edo taldeak jardueran parte hartu izana ezagutarazteko kartelaren, eskuliburuaren edo antzekoen ale bat.

6. Baldin eta Aiarako Kuadrillak diruz lagundutako pertsona fisiko edo juridikoak, dirulaguntza jaso ondoren, jarduera horretarako beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren berri badu, erakunde horrek emandako dirulaguntza eman izanaren jakinarazpenaren fotokopia bat aurkeztu beharko du (behar bezala sinatuta) kuadrillan, dirulaguntzaren zenbatekoa adierazita, kuadrillako diruzaintzan dirulaguntzaren soberakina itzultzeko.

7. Aurkeztutako fakturen guztirako zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako proiektu zein jarduera burutzen ez bada, onuradunak horren berri emango dio kuadrillari, gainerako dirua kuadrillaren diruzaintzan sartzeko edo, bestela, emandako dirulaguntza murrizteko.

Frogagiriak bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, dirulaguntza jasoko duen jarduera amaitzen denetik kontatzen hasita; nolana ere, abian den urtearen abenduaren 31 baino lehen.

Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ematen ez bada, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira, berandutze interesekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. apartatuan ezarritako eran.

17. Dirulaguntza galtzea

Dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek beheago zehaztutako baldintzak betetzen ez baldin badituzte, eta ez betetzeen larritasun mailaren arabera, jasotako zenbatekoen guztizkoa edo haien zati bat gehi dirulaguntzaren ordainketa unetik aurrerako berandutze interesak itzultzeko betebeharra egongo da, Aiarako Kuadrillari egindako konturako transferentzia bitartez eta diru sarreraren egiaztagiria kuadrillaren egoitzan aurkeztearen bitartez.

Hauek dira inguruabar horiek:

– Aurkeztutako eskaeran edo agirietan datu faltsuak jarri badira.

– Dirulaguntzaren emakida arrazoitu zuen jardueraren helburua guztiz edo modu partzalean ez bada bete.

– Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo justifikazioa behar bezalakoa ez bada.

– Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunari diruz lagundu zaion jardueraren kostua gainditzen badu.

– Aiarako Kuadrillari berehala ez bazaio jakinarazi bestelako dirulaguntza publikoak edo pribatuak jaso izana, nahiz eta Aiarako Kuadrillak onetsi dagokion likidazioa.

– Eta, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko legerian ezarritako edozein ez betetze.

18. Dirulaguntzen zati bat itzultzea eta ez-betetzeen mailaketa irizpideak

Balioespen organoak dirulaguntzak modu partzialean itzultzea proposatuko du jardueraren gastuen behin betiko likidazioa jardueraren gastuen hasierako aurrekontua baino baxuagoa izan denean eta onuradunak aurretik berrikustea eskatu ez duenean. Itzulketa kalkulatzeko, balioespen organoak proportzionaltasun irizpidea aplikatuko dio aurkeztutako likidazioari.

19. Zehapenak

Balioespen organoak, aurretiaz dagokion espedientea ireki ondoren eta ez-betetzeen larritasunari buruzko balioespena egin eta gero, Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko dizkio diruzko eta ez-diruzko zehapenak, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. kapituluko IV. tituluan jasotakoak, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrakiko independenteak direnak. Beti ere, zehapen bat jartzean dirulaguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko da.

Oinarri hauetan eskatzen diren baina Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean arautzen ez diren baldintzak betetzen ez badira, ehuneko 5 murriztuko da emandako dirulaguntza bete ez den baldintza bakoitzeko.

Jasotako zenbatekoak eta berandutze interesak itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioak izango dira elkarte onuradunen administratzaileak edo ordezkariak.

20. Garapena, interpretazioa eta zabalkundea

Kuadrillaren Tokiko Gobernu Batzarrak deialdi hau garatzeko beharrezkotzat jotzen diren ebazpenak emango ditu.

Oinarri hauen interpretazioari buruzko duda guztiak Tokiko Gobernu Batzarrak argituko ditu.

Oinarri hauek Lehendakariaren ekainaren 23ko 44/2023 Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Arespalditza, 2023ko ekainaren 23a

Lehendakaria

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA

I. ERANSKINA Dirulaguntza eskaera**ESKABIDEA/SOLICITUD**

IZENA NOMBRE	1. ABIZENA 1^{ER} APELLIDO	2. ABIZENA 2^O APELLIDO
NAN DNI	HARREMANETARAKO TELEFONOAK TELÉFONOS DE CONTACTO	POSTA ELEKTRONIKOA CORREO ELECTRÓNICO
HELBIDEA HELBIDEA	HERRIA LOCALIDAD	POSTA KODEA CÓDIGO POSTAL
BERE IZENEAN EDO ORDEZKATUZ ACTUANDO EN NOMBRE PROPIO O EN REPRESENTACIÓN DE		AGIRIAREN ZK. CIF Nº DE DOCUMENTO CIF
ERAKETA-DATA FECHA DE CONSTITUCIÓN	BANKUEN DATUAK (BANKUA ETA IBAN) DATOS BANCARIOS (BANCO IBAN)	
	EUSKO JAURLARITZAREN ELKARTEEN ERREGISTROAN INSKRIBATZEAREN DATA FECHA DE INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO DE ASOCIACIONES DE GOBIERNO VASCO	

AZALTZEN DU/EXPONE**1. ESKATUTAKO JARDUERA EDO PROGRAMA:**

.....
.....
.....

2. ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA:

.....
.....
.....

Arespalditzan, 2023koren(e)an.

Respaldiza, a dede 2023.

Sin.:

(Entitatearen legezko ordezkariaren sinadura).

I. ERANSKINA. Jardueraren edo programaren memoria

1. ESKATUTAKO JARDUERAREN EDO PROGRAMAREN IZENA:

.....
.....

NORENTZAT DEN JARDUERA EDO PROGRAMA:

ADINGABEAK:

GAZTEAK:

HELDUAK:

JARDUERAREN EDO PROGRAMAREN HELBURU NAGUSIAK:

.....
.....
.....
.....
.....

ESKATUTAKO JARDUERA EDO PROGRAMAREN DESKTRIBAPENA:

.....
.....
.....
.....
.....

2. JARDUERAREN EDO PROGRAMAREN AURREKONTUA:

DIRU SARRERAK

GASTUAK

.....
.....
.....
.....

GUZTIRA:

3. AIARAKO KUADRILLARI ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA:

.....

4. ELKARTEA:

ELKARTEA OSATZEN DUTEN PERTSONAK (elkarteen kasuan):

Gizonak:, Emakumeak:, GUZTIRA:

ELKARTEA ERATU ZEN URTEA:

ELKARTEA ZENBAT URTE ARI DEN LANEAN:

5. JARDUERA EDO PROGRAMA EGITEKO LEKUA, EGUNA ETA ORDUTEGIA:

.....
.....

6. JARDUERAN EDO PROGRAMAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA:

JARDUERAREN PUBLIZITATEAN:

EUSKARA:

GAZTELANIA:

BIAK:

JARDUERA EGITEAN:

EUSKARA:

GAZTELANIA:

BIAK:

7. JARDUERAREN BERDINTASUNeko GENERO IKUSPEGIA:

.....
.....
.....
.....

Eskaera honetako datu guztiak egiazkoak direla adierazten dut. Halaber, deialdiaren oinarriak osorik onartzen ditut, eta Aiarako Kuadrillari baimena ematen diot eskaera honetako datuetatik edozein egiaztatzeko, elkartearen erregistroetan edo agirietan begiratzuz.

Arespalditzan, 2023koren(e)an.

Respaldiza, a dede 2023.

Sin.:

(Entitatearen legezko ordezkariaren sinadura).

II. ERANSKINA

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, DIRULAGUNTZEI BURUZKO AZAROAREN 17KO
38/2003 LEGE OROKORRAREN 13. ARTIKULUKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKOA**

.....jaunak/andreak,NAN zenbakidunak,
..... erakundearen legezko ordezkaria den aldetik, hau

ADIERAZTEN DU

Erakundea ez dago Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotako eta onuradun izatea debekatzen duten inguruabarren barne, hirugarren oinarrian adierazitakoarekin bat eginez.

Erakunde onuradunak bete egiten ditu Lege horren 14. artikuluan laguntzen eta dirulaguntzen jasotzaile izateko jasotako betebeharrak.

Zehazki, erakunde onuraduna ez dago Lege horren 13.2. artikulua b) hizkian jasotako inguruabarren barne.

Arespalditzan, 2023koren(e)an.

Sin.:

(Entitatearen legezko ordezkariaren sinadura).

III. ERANSKINA**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

.....jaunak/andreak,NAN zenbakidunak,
..... erakundearen legezko ordezkaria den aldetik, hau

ADIERAZTEN DU

– Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak ordaintzeari dago-kionez egunean egotea, baita itzulketa bidezko zergekiko eta zuzenbide publikoko gainerako zorrekiko ere.

– Dirulaguntzak itzuli beharrari buruzko eginbeharrak egunean izatea.

– Onuradun izateko debekuren baten barne ez egotea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan adierazitakoak hain zuzen ere.

Kuadrillak, beharrezkotzat jotzen baldin badu, dagozkion ziurtagiriak aurkezteko eskatu ahal izango du.

DOKUMENTUAK EZ AURKEZTEKO ESKUBIDEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta salbu eta berariaz aurka agertzen bazara, jakinarazten dizugu Aiarako Kuadrillak, bere eskumenak baliatuz, bitarteko elektronikoen bidez eskatuko dituela dokumentu hauek. Berariaz aurka egiten badiozu Aiarako Kuadrillak dokumentu horietakoren bat jasotzeari, jarraian gaitutako laukian adierazi beharko duzu, eta eskaera honekin batera aurkeztu beharko dituzu dokumentuak:

Aurka egitea:

Zerga betebeharrak beteta edukitzearen egiaztagiria.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta edukitzearen egiaztagiria.

Arespalditzan, 2023koren(e)an.

Sin.:

(Entitatearen legezko ordezkariaren sinadura).

IV. ERANSKINA

**BESTE DIRULAGUNTZARIK ESKATU ETA/EDO JASO IZANAREN EDO, HALA
BADAGOKIO, EZ ESKATU ETA/EDO EZ JASO IZANAREN ZINPEKO ADIERAZPENA**

.....jaunak/andreak,NAN zenbakidunak,
..... erakundearen legezko ordezkaria den aldetik, hau

ADIERAZTEN DU

Programa edo jarduera honetarako honako dirulaguntza hauek eskatu dizkie erakunde hauei eta honako zenbateko hauez, data hauetan:

Programa edo jarduera honetarako, honako dirulaguntza hauek eman zaizkie honako erakunde hauei, dirulaguntzak emateko ebazpen hauen bidez eta adierazten diren zenbateko hauez eta data hauetan:

Programa edo jarduera honetarako ez da dirulaguntzarik eskatu edo jaso (formula hau erabili baldin eta esleipena eskatu edo jakinarazi ez bada edo beste dirulaguntzarik jaso ez bada).

Eta horrela jasota geratu dadin, eskatutako dokumentazio ondorioetarako, zinpeko adierazpen hau sinatu dut.

Arespalditzan, 2023koren(e)an.

Sin.:

(Entitatearen legezko ordezkariaren sinadura).

V. ERANSKINA

AIARAKO KUADRILLAREN ESKUALDE LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

1. DIRULAGUNTZA ESKATZEN DUEN PERTSONA FISIKOA EDO JURIDIKOA:

IZENA ETA ABIZENAK:

ELKARTE ESKATZAILEA ETA LEGEZKO ORDEZKARIA (elkarteen kasuan).

.....

.....

2. HARREMANETARAKO DATUAK:

Helbidea:

Telefonia:

Posta elektronikoa:

3. ELKARTEA OSATZEN DUTEN PERTSONAK (elkarteen kasuan).

Gizonak:, Emakumeak:, GUZTIRA:

EGINDAKO JARDUERAREN EDO PROGRAMAREN IZENA:

.....

.....

4. MEMORIA: GAUZATUTAKO JARDUERA EDO PROGRAMAREN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIOA (jarduera non, noiz eta zer ordutan egin den, zenbat pertsonak parte hartu duten, euskararen erabilera, genero ikuspegiaren edo berdintasun ekintzen deskribapena, jardueraren balorazioa, etab.).

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. EGINDAKO JARDUERAREN EDO PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIO XEHATUA: DIRU SARREREN ETA GASTUEN XEHETASUNA:

A) GASTUEN XEHAKAPENA:

KONTZEPTUA	HORNITZAILEA	FAKTURA ZK.	FAKTURA DATA	FAKTURA, GUZTIRA	ORDAINAGIRIA
			GUZTIRA		

B) DIRU SARREREN XEHAKAPENA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

GUZTIRA:

C) JASOTAKO GAINERAKO DIRULAGUNTZEN EDO DIRU SARREREN AITORPENA:

JASOTAKO DIRULAGUNTZAREN IZENA	ADMINISTRAZIO EDO ENTITATE EMAILEA	EMATEKO EBAZPENA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	DIRULAGUNTZA KOBATZEAREN DATA

D) UKATUTAKO BESTE DIRULAGUNTZA EDO DIRU SARRERA BATZUEN AITORPENA:

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN IZENA	ZEIN ADMINISTRAZIO EDO ERAKUNDEK UKATZEN DUEN	DIRULAGUNTZA UKATZEKO EBAZPENA	UKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA	DIRULAGUNTZA ZEIN DATATAN UKATU DEN

Behean sinatzen duenak zinpeko adierazpen hau egiten du:

- Egiaztatzen du Aiarako Kuadrillak diruz lagundutako jarduera edo programa dirulaguntza xede zen helburua betez gauzatu dela.
- Justifikazioaren likidazioan aipatutako diru sarrerak eta gastuak dira diruz lagundutako jarduera edo programa gauzatzeko lortu eta jaso diren bakarrak.
- Kuadrillak emandako dirulaguntza ordaindu ondoren jakinarazten bazaio jarduera horretarako beste entitate publiko edo pribatu batek beste dirulaguntza bat eman diola, entitate horrek dirulaguntza eman izanaren jakinarazpenaren fotokopia aurkeztu beharko du berehala, kuadrillan, kuadrillako diruzaintzan dirulaguntzaren soberakina itzultzeko.
- Entitate eskatzaileak beteta ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Dirulaguntza honen justifikazioan jasotako datu guztiak egiazkoak dira.
- AIARAKO KUADRILLAK EMANDAKO DIRULAGUNTZA, GUZTIRA:

.....
Arespalditzan, 2023koren(e)an.

Respaldiza, a dede 2023.

Sin.:

(Entitatearen legezko ordezkariaren edo bere izenean diharduen pertsona fisikoaren sinadura).